



Aurretiazko genero eraginaren txostena

Foru Arau aurreproiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onestekoa

1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren alde aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

Informe de evaluación previa de impacto de género

Anteproyecto de Norma Foral por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias

1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:



- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.
- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada.

2. Arau aldaketak

Proposatutako aldaketak, zerga sistemaren eta haren birbanaketa funtzioaren progresibitatean aurrera egiten jarraitzeaz gain, lurraldeak aurre egin behar dien erronka eta desafio batzuei erantzuten saiatzen dira. Ildo horretan, ehun ekonomiko eta sozialaren berrikuntzaren eta lehiakortasunaren aldeko apustua sendotu nahi da, honako hauei aurre egiteko: erronka demografikoa, ingurumenaren arazoak, genero berdintasuna, errenta txikiak dituzten zergadunen babesa, bizitza pertsonala eta lana uztartzea, etxebizitza, enplegua edo pentsioak eskuratzea.

2. Modificaciones normativas

Las modificaciones propuestas, además de seguir avanzando en la progresividad del sistema tributario y de su función redistributiva, tratan de dar respuesta a una serie de retos y desafíos a los que se enfrenta el territorio. En ese sentido, se pretende apuntalar la apuesta por la innovación y la competitividad del tejido económico y social para hacer frente: al reto demográfico, a los problemas del medio ambiente, a la igualdad de género, a la protección de las personas contribuyentes con rentas más bajas, a la conciliación de la vida personal y laboral, al acceso a la vivienda, al empleo o las pensiones.



Jarraian, laburbilduta, proiektuan sartutako neurri nagusiak adierazten dira.

A continuación se señalan, en modo resumido, las principales medidas incorporadas en el proyecto.

1) Progresibitatearekin eta birbanaketarekin
lotutako PFEZaren neurriak

- Lan etekinen hobaria. Hobariaren gehieneko zenbatekoa 4.650 eurotik 8.000 eurora eguneratuta; lan etekinen aurretiazko etekinaren beheko tarteak 7.500 eurotik 14.800 eurora igarotuta; lan etekinen aurreko etekinaren goiko tarteak 15.000 eurotik 23.000 eurora igarotuta; eta formula aplikatzeko koefizientea 0,22tik 0,6098ra igarotuta. Gutxieneko hobaria 3.000 eurokoa izaten jarraituko du.

1) Medidas del IRPF relacionadas con la
progresividad y redistribución

- Bonificación del rendimiento del trabajo. Se actualiza el importe máximo de la bonificación de 4.650 euros a 8.000 euros; el tramo inferior de rendimiento previo de rendimiento de trabajo pasa de 7.500 euros a 14.800 euros; el tramo superior de rendimiento previo de rendimiento de trabajo pasa de 15.000 euros a 23.000 euros; y el coeficiente de aplicación de la formula pasa de 0,22 a 0,6098. La bonificación mínima se mantiene en 3.000 euros.

Indarrean / Vigente		Proposamena / Propuesta	
Aurretiazko lan etekina / Rendimiento previo trabajo	Hobaria / Bonificación	Aurretiazko lan etekina / Rendimiento previo trabajo	Hobaria / Bonificación
≤ 7.500	4.650	≤ 14.800	8.000
7.500 - 15.000	$4.650 - ((\text{dif} - 7.500) * 0,22)$	14.800 - 23.000	$8.000 - ((\text{dif} - 14.800) * 0,6098)$
> 15.000	3.000	> 23.000	3.000

- Autolikidatzeko betebeharra. 14.000 euroko muga 19.000 eurora aldatzen da, eta baldintza jakin batzuetan jarduten duen

- Obligación de autoliquidar. El límite de 14.000 euros pasa a 19.000 euros y se elimina el límite de doble umbral de

14.000-20.000 euroko atalase bikoitzeko muga ezabatu egiten da. Ondorioz, atxikipen taularen arabera autolikidatzeko aukera berezia ezabatzen da.

- Aurrezpenaren oinarriaren tarifa. Tarifa berria ezartzen da, 6 tartekoa: hasierako tasa %20koa izango da 15.000 euroko oinarria arte, eta %27koa 240.000 eurotik aurrera. Indarrean dagoen tarifak 5 tarte ditu: hasierako tasa %20koa da 2.500 eurora arteko oinarria arte, eta %25ekoa 30.000 eurotik gorako oinarritik.

Indarrean / Vigente			
Oinarria / Base	Kuota / Cuota	Gainerakoa / Resto	Tasa / Tipo
0	0	2.500	20%
2.500	500	7.500	21%
10.000	2.075	5.000	22%
15.000	3.175	15.000	23%
30.000	6.625		25%

- Salbuetsitako errentak. 180.000tik 183.600 eurora pasa da langilea kaleratzeagatik edo lana uzteagatik kalte ordainetan salbuetsitako gehieneko zenbatekoa

14.000-20.000 euros, que opera bajo ciertas condiciones. En consecuencia, se elimina la opción especial de autoliquidar con arreglo a la tabla de retenciones.

- Tarifa de la base del ahorro. Se establece una nueva tarifa de 6 tramos, con un tipo inicial del 20% hasta 15.000 euros de base y del 27% a partir de 240.000 euros de base. La tarifa vigente tiene 5 tramos, con un tipo inicial del 20% hasta 2.500 euros de base y del 25% a partir de 30.000 euros de base.

Proposamena / Propuesta			
Oinarria / Base	Kuota / Cuota	Gainerakoa / Resto	Tasa / Tipo
0	0	15.000	20%
15.000	3.000	15.000	22%
30.000	6.300	30.000	23%
60.000	13.200	60.000	25%
120.000	28.200	120.000	26%
240.000	59.400		27%

- Rentas exentas. Pasa de 180.000 a 183.600 euros la cantidad máxima exenta en indemnizaciones por despido o cese de la persona trabajadora



2) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko sistemen fiskalitatearen aldaketak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Errenta moduan kobratzen diren prestazioentzat, errentagarritasuna salbuetsita geratuko da, eta ekarpenei/kontribuzioei dagokien zatia oinarri orokorraren parte izango da.
- Kapital moduan kobratzen diren prestazioentzat, errentagarritasuna aurrezkiaren oinarriaren parte izango da, eta ekarpenei/kontribuzioei dagokien zatia %60an sartuko da oinarri orokorrean.
- Murrizpenaren mugak oinarrian. Enpleguko BGAEi egindako ekarpenak egungo 5.000 euroko mugatik ateratzen dira, eta 8.000 euroko mugaren barruan konputatzen dira, BGAE horiei egindako ekarpenekin batera. Langile autonomoen ekarpenen kasuan, ekarpenen muga 4.000 eurokoa izango da. Nolanahi ere, oinarria murrizteko gehieneko muga osoa 12.000 eurokoa izango da.

2) Modificaciones en la fiscalidad de los sistemas de previsión social voluntaria

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- En las prestaciones que se cobren en forma de renta, la rentabilidad quedará exenta y la parte correspondiente a las aportaciones/contribuciones formará parte de la base general.
- En las prestaciones que se cobren en forma de capital, la rentabilidad formará parte de la base del ahorro, y la parte correspondiente a las aportaciones/contribuciones se integrará al 60% en la base general.
- Límites de la reducción en base. Las aportaciones a EPSV de empleo salen del límite actual de 5.000 euros y pasan a computar dentro del límite de 8.000 euros junto a las contribuciones a esas mismas EPSV. En el caso de aportaciones de personas trabajadoras autónomas el límite de las aportaciones será de 4.000 euros. En todo caso, el límite máximo conjunto de reducción de la base se mantiene en 12.000 euros



- Kenkari berri bat ezarri da lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetarako ekarpenengatik. %15, %20 edo %25ekoa izan daiteke, erakunde enplegatzaillearen ekarpenen eta kontribuzioen mailaren arabera, betiere urteko soldata gordin osoaren %3 baino handiagoa bada. Portzentaje hori gainditzen ez bada, aldi baterako 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako, %10eko kenkaria onartzen da.
- Kenkari berri bat ezartzen da autonomoek enpleguko gizarte aurreikuspeneko planei egindako ekarpenengatik. %10eko portzentaje orokorra eta %15ekoa 36 urtetik beherakoentzat.
- Se establece una nueva deducción por aportaciones a planes de previsión social preferentes. Podrá ser del 15%, 20% o 25% según el nivel de aportaciones y contribuciones de la entidad empleadora, siempre que sea superior al 3% del salario bruto anual total. Si no se supera dicho porcentaje, transitoriamente para los períodos impositivos que van desde 2025 a 2029, se permite una deducción del 10%
- Se establece una nueva deducción por aportaciones realizadas por autónomos a planes de previsión social de empleo. Porcentaje general del 10% y del 15% para menores de 36 años.

Sozietateen gaineko zerga

- Kenkari berri bat ezartzen da erakunde enplegatzailleak lehentasunezko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei egindako ekarpenengatik. Kenkaria %15, %20 edo %25ekoa izan daiteke, kontribuzio horien arabera, baldin eta erakunde enplegatzaillearen urteko soldata gordin osoaren %1,5 baino handiagoak badira. 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, %10eko kenkaria ezartzen da, erakunde

Impuesto sobre sociedades

- Se establece una nueva deducción por contribuciones de la entidad empleadora a entidades de previsión social voluntaria preferentes. El porcentaje de deducción puede ser del 15%, 20% o 25%, dependiendo de esas contribuciones, siempre y cuando sean superiores al 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora. Con efectos para períodos impositivos del 2025 a 2029 se establece una deducción del 10%, cuando no se



enplegatzailearen urteko soldata gordin osoaren % 1,5 gainditzen ez denean.

- Kenkari berri bat ezartzen da erakunde enplegatzaileak enpleguko gizarte aurreikuspeneko planei egindako kontribuzioengatik. Kenkariaren portzentajea %10ekoa izango da, betiere erakunde enplegatzailearen urteko soldata gordin osoaren %1,5 baino handiagoak badira, edo 36 urtetik beherako pertsonei egindako ekarpenen kasuan. 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, %5eko kenkaria ezartzen da, erakunde enplegatzailearen urteko soldata gordin osoaren %1,5 gainditzen ez denean.

3) PFEZaren neurriak, familia unitate fiskalaren kontzeptua gizarte premia eta errealitate berrietara egokitzeko

- Baterako tributazioa. Familia unitatearen kontzeptua gizarte errealitate eta premia berrietara egokitzen da, eta ikusgarritasun eta protagonismo handiagoa ematen zaie guraso bakarreko familiei; izan ere, bi gurasoko familiaren tratamendu fiskalarekin parekatzen da (4.800 euroko murrizketa

supere ese 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora

- Se establece una nueva deducción por contribuciones de la entidad empleadora a planes de previsión social de empleo. El porcentaje de deducción será del 10%, siempre y cuando sean superiores al 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora, o en caso de contribuciones realizadas a personas menores de 36 años. Con efectos para períodos impositivos del 2025 a 2029 se establece una deducción del 5%, cuando no se supere ese 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora

3) Medidas del IRPF dirigidas a adaptar el concepto de unidad familiar fiscal a las nuevas necesidades y realidades sociales

- Tributación conjunta. Se adapta el concepto de unidad familiar a las nuevas realidades y necesidades sociales, dando mayor visibilidad y protagonismo a las familias monoparentales, ya que se iguala su tratamiento fiscal al de la familia biparental (se establece una única



bakarra ezartzen da familia unitatearen modalitate guztietarako, eta, indarrean dagoen araudiarekin, 4.168 eurokoa da guraso bakarreko familia unitateetarako). Alde horretatik, bereziki garrantzitsua da aurreikuspen hau: legezko banantzea, ezkontza loturarik edo izatezko bikoterik ez badago, eta horretarako ebazpen judiziala egotea gertatuz gero, familia unitatea izango da gurasoa edo adoptatzailea edo hartzailea eta ekonomikoki modu esklusiboan mendekoak diren pertsona guztiak. Kontrako frogarik ezean, bi gurasoen mendekotasun ekonomikoa dagoela uste izango da. Azkenik, familia unitatearen modalitate berri bat gehitu da, etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimen babesa areagotzeko.

reducción de 4.800 euros para todas las modalidades de unidad familiar, mientras que con la normativa vigente es de 4.168 euros para unidades familiares monoparentales). En ese sentido, cobra especial relevancia la previsión de que, en caso de separación legal, ausencia de vínculo matrimonial o pareja de hecho y existencia de resolución judicial al efecto será unidad familiar la persona progenitora o la persona adoptante o acogedora y todas las personas dependientes económicamente de forma exclusiva. Se presume, salvo prueba en contrario, que existe dependencia económica de ambos progenitores. Por último, se incorpora una nueva modalidad de unidad familiar con el fin de incrementar la protección de las víctimas de violencia doméstica o de violencia de género.

4) Emakumeen ekintzailetza sustatzera bideratutako PFEZaren neurriak

- Jarduera ekonomikoen etekina. Jarduera ekonomikoaren hasieraren kasuan aplikatu beharreko murrizketa %10etik %15era igo da emakumeen kasuan.

4) Medidas del IRPF dirigidas a incentivar el emprendimiento de las mujeres

- Rendimiento de actividades económicas. La reducción aplicable en el caso de inicio de actividad económica pasa del 10% al 15%, en el caso de mujeres.



- Kenkaria Enpresa sortu berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik. Kenkariaren ehunekoa %20tik %25era igo da emakumeentzat.
- Kenkaria hazkunde ahalmen handiko entitateak erakundeak finantzatzeagatik. Emakumeen portzentajea %30etik %35era igotzen da enpresa berritzaile sortu berrien akzioen harpidetzen kasuan, eta %15etik %20ra hazkunde prozesuan dauden enpresen akzioen harpidetzen kasuan.
- Deducción por inversión en empresas de nueva o reciente creación. El porcentaje de deducción pasa del 20% al 25% para las mujeres
- Deducción por financiación a entidades con alto potencial de crecimiento. El porcentaje pasa del 30% al 35% para las mujeres en el caso de suscripción de acciones de empresas innovadoras de nueva creación; y del 15% al 20% para la suscripción de acciones de empresas en proceso de crecimiento.

5) Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzea hobetzeko eta errazteko neurriak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Kenkari berri bat sartu da 3 urtetik beherako adingabeak zaindu ondoren lan merkatura itzultzeagatik. Zenbatekoa 1.200 eurokoa da emakumeentzat eta 1.500 eurokoa gizonentzat. Zenbateko horiek %50 handitzen dira erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan.

5) Medidas dirigidas a mejorar y facilitar la conciliación de la vida personal, familiar y laboral

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- Se introduce una nueva deducción por reincorporación al mercado laboral tras el cuidado de menores de 3 años. El importe es de 1.200 euros para las mujeres y de 1.500 euros para los hombres. Esos importes se incrementan en un 50% cuando se trate de partos o adopciones múltiples.



- Araubide berezi bat ezartzen da 36 urtetik beherako zergadunek kenkari jakin batzuk aplikatzeko. Hala, ondorengoengatik, alokairuagatik eta etxebizitza erosteagatik ekitaldian aplikatu ez diren gehiegizko kenkariak hurrengo 5 ekitaldietan kendu ahal izango dira.
- Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen egoitza zentroetan egindako gastuengatik kenkari berri bat ezartzen da. Zenbatekoa 385 eurokoa izango da urte natural osoan modu jarraituan eta iraunkorrean egoitza zentro batean bizi diren zergadunentzat. Salbuespen gisa, beste ezkontideak ere aplikatu ahal izango du.
- Adingabeak eta mendekotasun edo desgaitasun maila jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik kenkari berri bat ezartzen da. Oro har, 250 eurokoa izango da; eta 500 eurokoa, zaintzailea profesionala bada.
- Ondorengoentzako elikagaiengatik urteko kuotak ordaintzeagatik kenkaria. Aitona - amonek ere aplika dezakete. Kenkaria kendu da zaintza partekatuaren kasuan.
- Se establece un régimen especial para la aplicación de determinadas deducciones por las personas contribuyentes menores de 36 años. Así, los excesos de deducciones por descendientes, alquiler y adquisición de vivienda no aplicados en el ejercicio podrán deducirse en los 5 ejercicios siguientes.
- Se establece una nueva deducción por gastos de personas con discapacidad o dependencia en centros residenciales. El importe será 385 euros para las personas contribuyentes que residan de forma continua y permanente durante todo el año natural en un centro residencial. Excepcionalmente, podrá ser aplicable por el o la otra cónyuge.
- Se establece una nueva deducción por cuidado de menores y personas con determinado grado de dependencia o discapacidad. Será en general de 250 euros; y de 500 euros si la persona cuidadora es una profesional.
- Deducción por abono de anualidades por alimentos a los descendientes. Se abre la posibilidad de aplicarla por las abuelas o los abuelos. Se elimina la deducción en caso de custodia compartida.



- Gauzazko lan etekinak. Telelanerako ondasunak edo zerbitzuak ematea ez da kapital higigarriaren errendimendutzat hartuko.

Sozietateen gaineko zerga

- Kenkari berri bat ezartzen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko neurriak ezartzeagatik. Kuota likidoaren %5 (2.500 muga) eta %15 (7.500 muga) artean.

6) Etxebizitza eskuratzeko erronkari aurre egiteko neurriak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Ohiko etxebizitza erosteagatik kenkaria. Kenkariaren portzentajea %18tik (1.530 euroko muga) %23ra (1.955 euroko muga) pasatzen da guraso bakarreko familientzat, %65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat eta etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimentzat.

- Rendimientos de trabajo en especie. Se establece la no consideración de rendimiento de capital mobiliario la entrega de bienes o servicios para teletrabajo.

Impuesto sobre sociedades

- Se establece una nueva deducción por la implantación de medidas de conciliación de la vida personal, familiar y laboral. De entre el 5% (límite 2.500) y el 15% (límite 7.500) de la cuota líquida

6) Medidas para para abordar el desafío del acceso a la vivienda

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- Deducción por adquisición de vivienda habitual. El porcentaje de deducción pasa del 18% (límite de 1.530 euros) al 23% (límite de 1.955 euros) para familias monoparentales, personas con discapacidad $\geq 65\%$ y víctimas de violencia doméstica o de género.



- Kapital higiezinaren etekina. Etxebizitza errentamenduetan, etekin osoen gaineko %20eko hobari aplikagarria aldatu egiten da: 1) %30era, Hiri Errentamenduen Legearen 2. artikuluari atxikitako errentamenduetan; 2) %50era, bitartekaritza publikoa dagoenean; 3) %50era, zona tentsionatuetan egiten direnean, Hiri Errentamenduen Legearen 2. artikuluari atxikita daudenean eta lehen aldiz alokatzen direnean edo azken 5 urteetan errentan egon ez direnean.
- Ohiko etxebizitza berrinbertitzea. Etxebizitza aldaketa eskatzen duten inguruabar jakin batzuk (familia premiak, lan lekualdatzea, ezkontza, banantzea...) gertatzen diren kasuetara mugatzen da salbuespena.
- Ohiko etxebizitza alokatzeagatikoen kenkaria. Kenkaria aplikatzeko aukera kentzen da zergadunaren oinarri likidagarri orokorra (gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioen murrizketak kontuan izan gabe), eta, hala badagokio, aurrezpenaren oinarri likidagarria, 85.000 eurokoa edo txikiagoa denean.
- Rendimiento de capital inmobiliario. En los arrendamientos de vivienda la bonificación aplicable sobre los rendimiento íntegros pasa del 20% al: 1) 30% en los arrendamientos acogidos al artículo 2 de la Ley de Arrendamientos Urbanos; 2) 50% en el caso de que haya intermediación pública; 3) 50% en el caso de que se realicen en zonas tensionadas, estén acogidas al artículo 2 de la Ley de Arrendamientos Urbanos y se arrienden por primera vez o no hayan estado arrendadas en los últimos 5 años.
- Reinversión de vivienda habitual. Se limita la exención a los casos en los que concurren determinadas circunstancias que exijan el cambio de vivienda (necesidades familiares, traslado laboral, matrimonio, separación...).
- Deducción por alquiler de vivienda habitual. Se elimina la posibilidad de aplicarse la deducción para personas contribuyentes que tengan una base liquidable general, determinada sin computar las reducciones por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social, y, en su caso, una base liquidable del ahorro, iguales o inferiores a 85.000 euros.



- Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkaria. %35eko portzentajea ezartzen da (2.800 euroko muga) 36 urtetik beherakoentzat, %65eko edo gehiagoko desgaitasuna dutenentzat eta etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimentzat. Indarrean dagoen araudian, 30 urtetik beherako pertsonak %30eko portzentajea dute (2.400 euroko muga), eta gainerako kolektiboak %20ko kenketa orokorra aplikatzen zaie (1.600 euroko muga).
- Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria. Kenkaria aplikatzeko aukera kentzen da zergadunaren oinarri likidagarri orokorra (gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioen murrizketak kontuan izan gabe), eta, hala badagokio, aurrezpenaren oinarri likidagarria, 85.000 eurokoa edo txikiagoa denean.
- Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria. Gazteentzako %23ko portzentajea (1.955 euroko muga) 36 urtetik beherakoei aplikatzen zaie, eta indarreko araudiarekin, berriz, 30 urtetik beherakoei. Gainera,
- Deducción por alquiler de vivienda habitual. Se establece un porcentaje del 35% (límite 2.800 euros) para personas menores de 36 años, personas con una discapacidad $\geq 65\%$ y víctimas de violencia doméstica o de género. En la normativa vigente las personas menores de 30 años tienen un porcentaje de deducción del 30% (límite 2.400 euros) y el resto de colectivos se aplica la deducción general del 20% (límite 1.600 euros).
- Deducción por adquisición de vivienda habitual. Se elimina la posibilidad de aplicarse la deducción para personas contribuyentes que tengan una base liquidable general, determinada sin computar las reducciones por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social, y, en su caso, una base liquidable del ahorro, iguales o inferiores a 85.000 euros.
- Deducción por adquisición de vivienda habitual. El porcentaje del 23% (límite de 1.955 euros) para personas jóvenes se aplica a menores de 36 años, mientras que con la normativa vigente la aplican



etxebizitza eskuratzen den urtean ez da aplikatuko urteko gehieneko muga.

las personas menores de 30 años. Además, no se aplicará el límite máximo anual el año de adquisición de la vivienda.

- Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria. Etxebizitza-kontuak. 36 urtetik beherakoentzat, gauatzeko aldia 6 urtetik 10 urtera igarotzen da.
- Deducción por adquisición de vivienda habitual. Cuentas vivienda. Para personas menores de 36 años el periodo de materialización pasa de 6 años a 10 años.
- Alokaturako etxebizitzentzat kenkari berri bat ezartzen da, babestutako birgaitzeengatik. %10ekoa izango da, 3.000 euroko mugarekin.
- Se establece una nueva deducción por rehabilitación protegida para viviendas arrendadas. Será del 10%, con un límite de 3.000 euros.
- Aurrezpenaren etekinak. Aurrezpenaren etekintzat hartuko dira etxebizitza errentamenduagatik lortutako kapital higiezinaren etekinen kasu berriak. 1) HELaren 2. artikulukoak; 2) bitartekaritza publikoak; 3) HELaren 2. artikulua, lehen aldiz alokairuan jarri diren edo azken 5 urteetan errentan egon ez diren eta merkatura itzuli diren zona tentsionatuetan kokatuak.
- Rentas del ahorro. Se considerarán rentas del ahorro los nuevos supuestos de rendimientos de capital inmobiliario obtenidos por el arrendamiento de vivienda. 1) artículo 2 de la LAU; 2) intermediación pública; 3) artículo 2 de la LAU ubicadas en zonas tensionadas que son puestas en alquiler por primera vez o no hayan estado arrendadas en los últimos 5 años y vuelvan al mercado.

Sozietateen gaineko zerga

- Erabilera lagapeneko erregimeneko etxebizitza kooperatibak bereziki babestutako kooperatiba sozietatetzat hartzen dira, eta, beraz, berezitasun horri lotutako zerga onurak aplikatu ahal izango dira.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

- 36 urtetik beherako gazteei egindako dohaintzetarako salbuespen bat gehitu da, ezkontideak/izatezko bikotekideak, aurreko ahaideek, ondorengo ahaideek edo hirugarren mailara arteko albokoek beren ohiko etxebizitza erostera bideratutako zenbatekoetatik, 30.000 euroko mugarekin.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

- Etxebizitzak eskualdatzeko %2,5eko tasa aplikatzean, ezabatu egiten da aldez aurretik ez aplikatzeko baldintza, eta horren ordez, ez da beste etxebizitza baten titular izango %25 baino gehiago etxebizitza berria erosten den udalerri berean.

Impuesto sobre sociedades

- Las Cooperativas de Viviendas en régimen de cesión de uso se consideran sociedades cooperativas especialmente protegidas, por lo que podrán aplicarse los beneficios fiscales asociados a dicha particularidad.

Impuesto sobre sucesiones y donaciones

- Se añade una exención para donaciones a jóvenes menores de 36 años de las cantidades destinadas a la adquisición de su vivienda habitual, realizadas por parte de su cónyuge/pareja de hecho, ascendientes, descendientes o colaterales de hasta 3º grado, con límite de 30.000 euros.

Impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados

- En la aplicación del tipo del 2,5% para la transmisión de viviendas se elimina el requisito de no aplicarlo con anterioridad, sustituyéndolo por no ser titular de otra vivienda en más de un 25% en el mismo municipio en el que se adquiera la nueva vivienda.



7) Fiskalitate berdeko neurriak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Etxebizitzaren birgaitze energetikoagatikorenkari berri bat ezarri da. % 15ekoa izango da, 3.000 euroko mugarekin.
- Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate normalean etekin garbia zehazteko arauak. Aldatu egiten da jarduerari lotutako ibilgailuengatikogastu kengarrien muga, errentamenduaren, lagapenaren edo balio galeraren kontzeptuan: 5.000 eurotik 6.000 eurora igarotzen da, eta 25.000 eurotik 30.000 eurora automobil, kuadriziklo eta motozikletentzat. Ibilgailu elektriko jakin batzuetarako, kopuru horiek handiagoak izango dira: 8.000 eta 40.000 euro. Erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuetan: 6.000 eurotik 7.200 eurora pasatzen da.
- Gauzazko etekinak. Ibilgailu elektriko jakin batzuei dagokien gauzazko ordainsariaren balorazioan %30eko murrizketa ezartzen da, %20ko orokorraren ordean.

7) Medidas de fiscalidad verde

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- Se establece una nueva deducción por rehabilitación energética de viviendas. Será del 15%, con un límite de 3.000 euros.
- Normas para la determinación del rendimiento neto en la modalidad normal del método de estimación directa. Se modifica la limitación de gastos deducibles por vehículos afectos a actividad en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación: pasa 5.000 a 6.000 euros, y de 25.000 a 30.000 euros para turismos, cuadriciclos y motocicletas. Para determinados vehículos eléctricos dichas cantidades serán más elevadas: 8.000 y 40.000 euros. En los demás conceptos relacionados con su utilización: se pasa de 6.000 a 7.200 euros.
- Rentas en especie. Se establece una reducción del 30%, en vez del 20% general, de la valoración de la retribución en especie correspondiente a determinados vehículos eléctricos.



- Ingurumena errespetatzen duten ibilgailu jakin batzuk erosteagatiko kenkari berri bat ezartzen da. %5ekoa izango da, 40.000 euroko oinarrizko mugarekin (10.000 euro motozikleten kasuan). Aurreko ibilgailua txatar bihurtuz gero, portzentajea %10ekoa izango da.
- Kenkari berri bat ezartzen da ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeagatik. %15ekoa izango da (oinarriaren muga 5.000 euro).
- Gauzazko lan etekinak. Gauzazko lanaren etekintzat ez da hartuko enpresa enplegatzailearen bizikleten erabilera etxetik lantokira joateko eta alderantziz.
- Se establece una nueva deducción por compra de determinados vehículos respetuosos con el medio ambiente. Será del 5%, con un límite de base de 40.000 euros (10.000 euros en el caso de motocicletas). El porcentaje será del 10% en el caso de achatarramiento del anterior vehículo.
- Se establece una nueva deducción por la instalación de puntos de recarga de vehículos eléctricos. Será del 15% (límite de 5.000 euros de base).
- Rendimientos de trabajo en especie. Se establece la no consideración de rendimiento del trabajo en especie la utilización de las bicicletas de las empresas empleadora para desplazarse del hogar al centro de trabajo y viceversa.

Sozietateen gaineko zerga

- Hiriko bizikletetan inbertitzeagatiko kenkari berri bat ezartzen da. Langileak beren egoitzatik lanera eta alderantziz joan daitezen errazteko, %10eko kenkaria proposatzen da (gehienezko 3.000 euroko oinarria elektrikoetan eta 500 eurokoa gainerakoetan). Gainera, zergaldi

Impuesto sobre sociedades

- Se establece una nueva deducción por inversión en bicicletas urbanas. Con el objetivo de facilitar el desplazamiento de los trabajadores de su residencia al trabajo y viceversa se plantea una deducción del 10% (base máxima 3.000 euros en eléctricas y 500 euros en resto).



bakoitzeko gehienezko oinarri bat ezartzen da: 15.000 euro mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat, eta 20.000 euro gainerakoentzat.

- Gastu ez kengarriak. Automobil, atoi, ziklomotor eta motozikleten erabileratik eratorritako gastuei dagokienez, gastu kengarriaren muga orokorra 25.000 eurotik 30.000 eurora aldatzen da. "0 emisioko" ibilgailuekiko espezifikotasuna sartzen da, 40.000 euroko mugarekin. Erabilera gastu kengarriak 3.000 eurotik 3.600 eurora pasatzen dira partzialki atxikitako ibilgailuetan, eta 6.000 eurotik 7.200 eurora erabat atxikitako ibilgailuetan.
- Amortizazio askatasuna, amortizazio azkarra eta amortizazio bateratua. Mikroenpresek eta enpresa txikiek amortizazio-askatasuna izango dute "0 emisioko" ibilgailuei eta birkarga puntuetarako inbertsioei dagokienez; eta amortizazio azeleratuko enpresa ertainek kasu horietarako.
- Ikerketa- eta garapen jarduerengatikoa kenkaria. %35eko portzentajea sartzen dira ingurumen inpaktu negatiboa

Además, se establece una base máxima por periodo impositivo: 15.000 euros para microempresas y pequeñas empresas y 20.000 euros para el resto.

- Gastos no deducibles. En relación con los gastos derivados de la utilización de vehículos automóviles de turismo, remolques, ciclomotores y motocicletas, el límite general de gasto deducible pasa de 25.000 a 30.000 euros. Se incluye especificidad respecto a los vehículos de "emisión 0" cuyo límite será de 40.000 euros. Los gastos de utilización deducibles pasan de 3.000 a 3.600 euros en los vehículos parcialmente afectos; y de 6.000 a 7.200 euros en los totalmente afectos.
- Libertad de amortización, amortización acelerada y amortización conjunta. Las microempresas y pequeñas empresas tendrán libertad de amortización respecto a los vehículos "emisión 0" y las inversiones para puntos de recarga; y las empresas medianas amortización acelerada para esos mismos supuestos.
- Deducción por actividades de investigación y desarrollo. Se incluyen en el porcentaje del 35% las actividades que



nabarmen murrizten duten jarduerak. Gainera, gastuak aurreko bi urteetan egindakoen batez bestekoa baino handiagoak badira, batez besteko horretara arteko portzentajea aplikatuko da, eta soberakinari, berriz, %50a.

- Garapen iraunkorrari buruzko kenkaria. %35eko portzentajea ezartzen da egindako jardueren ingurumen inpaktu negatiboa nabarmen murrizten duten inbertsio jakin batzuetarako (oinarriaren muga: 1M €).

Udal zergak

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan %50erainoko hobaria ezartzeko aukera arautzen da ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako jardueretarako.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %50erainoko hobaria ezartzeko aukera arautzen da ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako jardueretarako.

reduzcan de forma sustancial el impacto ambiental negativo. Además, cuando los gastos sean superiores a la media de los efectuados en los dos años anteriores, se aplicará el porcentaje hasta dicha media y al exceso el 50%.

- Deducción desarrollo sostenible. Se establece un porcentaje del 35% para determinadas inversiones que reduzcan de forma sustancial el impacto ambiental negativo de las actividades realizadas (límite de la base 1M€).

Tributos locales

- En el impuesto sobre actividades económicas se regula la posibilidad de establecer una bonificación de hasta el 50% para las actividades directamente vinculadas con la economía circular.
- En el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras se regula la posibilidad de establecer una bonificación de hasta el 50% para las actividades directamente vinculado con la economía circular.



8) Ekoizpen sarea babestera eta bultzatzera zuzendutako neurriak

Sozietateen gaineko zerga

- Gastuen arloko arau bereziak. Mikroenpresen oinarri ezargarriaren murrizpena % 10etik % 15era igo da.
- Oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa. Mikroenpresen eta enpresa txikien %70eko muga kendu egiten da.
- Ondare sozietateak. Tarifa berri bat ezartzen da, 6 tartekoa: hasierako tasa %20koa izango da, 15.000 euroko oinarria arte, eta %27koa 240.000 eurotik aurrera. Indarrean dagoen tarifak 5 tarte ditu: hasierako tasa %20koa da 2.500 euroko oinarri arte, eta %25koa 30.000 eurotik gorako oinarrientzat.

Indarrean / Vigente			
Oinarria / Base	Kuota / Cuota	Gainerakoa / Resto	Tasa / Tipo
0	0	2.500	20%
2.500	500	7.500	21%
10.000	2.075	5.000	22%
15.000	3.175	15.000	23%
30.000	6.625		25%

8) Medidas dirigidas a la protección e impulso del tejido productivo

Impuesto sobre sociedades

- Normas especiales en materia de gastos. La reducción en base imponible de las microempresas se incrementa del 10% al 15%.
- Compensación de bases imponibles negativas. Se elimina el límite del 70% de las microempresas y pequeñas empresas.
- Sociedades patrimoniales. Se establece una nueva tarifa de 6 tramos, con un tipo inicial del 20% hasta 15.000 euros de base y del 27% a partir de 240.000 euros de base. La tarifa vigente tiene 5 tramos, con un tipo inicial del 20% hasta 2.500 euros de base y del 25% a partir de 30.000 euros de base.

Proposamena / Propuesta			
Oinarria / Base	Kuota / Cuota	Gainerakoa / Resto	Tasa / Tipo
0	0	15.000	20%
15.000	3.000	15.000	22%
30.000	6.300	30.000	23%
60.000	13.200	60.000	25%
120.000	28.200	120.000	26%
240.000	59.400		27%



- Kuota efektiboa eta gutxieneko tributazioa. Orokorrak baino tributazio txikiagoak aplikatu ahal izateko, lan kontratu mugagabea duten langileen batez bestekoa mantendu edo handitzeko betekizuna, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako batera mugatzen da.
- Cuota efectiva y tributación mínima. Para poder aplicarse tributaciones mínimas inferiores a las generales, el requisito de mantener o incrementar el promedio de plantilla laboral con carácter indefinido se limita a las personas incluidas en alguno de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

- Ahaidetasunagatiko murrizketak. Senideei enpresak eta partaidetzak eskualdatzetik dagoen salbuespenean, zuzendaritza lanak 2 urtez uztea sartzen da.

Impuesto sobre sucesiones y donaciones

- Reducciones por razón de parentesco. En la exención de la transmisión de empresas y participaciones a familiares se incluye el abandono de labores de dirección 2 años.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Ondarezko irabaziak eta galerak. Enpresak eta partaidetzak eskualdatzetik salbuetsita geratzen dira, zuzendaritza lanak 2 urtez uzten badira.
- Kenkaria langileek beren entitate enplegatzailan parte hartzeagatik. Zehaztu egiten da kooperatiben kasuan nahitaezko

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- Ganancias y pérdidas patrimoniales. Se declara exenta la transmisión de empresas y participaciones, siempre que se abandonen las labores de dirección 2 años.
- Deducción por participación de las personas trabajadoras en la empresa. Se especifica que en el caso de cooperativas

ekarpenak baino ez direla kengarriak (hasierakoa eta ondorengoa).

sólo son deducibles las aportaciones obligatorias (inicial y posteriores).

3. Genero eragina

3.1 Genero egokitasuna

Aurreproiektu honetan jasotako neurri askok (gehienbat PFEZarekin lotutakoak) zuzenean eragiten die gizonei eta emakumeei, eta eragina izan dezakete emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edo kontrolatzeko orduan, bai eta genero-rolak hausteko orduan ere. Beraz, generoaren ikuspegitik aztertzea egokia dela ulertzen da.

Neurriak aztertzerakoan eta baloratzerakoan, genero ikuspegitik duten garrantziaren arabera ordenatu dira, bai eragindako pertsona kopuruan duten eraginagatik, bai emakumeen eta gizonen errenta erabilgarrian duten inpaktu ekonomikoagatik ere. Era berean, kontuan hartu da aztertzeke datu estatistiko egokiak dauden ala ez, edo neurrien eraginkortasunari buruzko azterlan enpirikoak dauden ala ez.

3. Impacto de género

3.1 Pertinencia de género

Muchas de las medidas contempladas en este anteproyecto (sobre todo las relacionadas con el IRPF) afectan directamente a hombres y mujeres y pueden influir en el acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres e incidir en la ruptura de los roles de género. Por tanto, se entiende que su análisis es pertinente desde el punto de vista de género.

A la hora de analizar y valorar las medidas se ha ordenado según su relevancia desde el punto de vista de género, tanto por la incidencia en el número de personas afectadas como por su impacto económico sobre la renta disponible de las mujeres y hombres. Asimismo, se ha tenido en cuenta la existencia o no de datos estadísticos adecuados para su análisis o de estudios empíricos sobre la eficacia de las medidas.



Horrela, neurriak arau aldaketen atalean aurkeztu diren ordenan aztertu eta baloratzen dira.

1) progresibitatearekin eta birbanaketarekin lotutako PFEZaren neurriak: lan etekinen hobaria, aitortzeko betebeharra eta aurrezpenaren oinarriaren tarifa.

2) enpleguko borondatezko gizarte aurreikuspeneko sistemak eta, bereziki, lehentasunezko planak sustatzera bideratutako PFEZaren neurriak: kuotako kenkari berriak eta prestazioen tributazioaren aldaketa.

3) PFEZaren neurriak, familia unitate fiskalaren kontzeptua gizarte premia eta errealitate berrietara egokitzeko: bi gurasoko familien eta guraso bakarreko familien artean tratamendua berdintzea, familia unitate bezala sartzea genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimak, beraien babesa indartzeko.

4) emakumeen ekintzailatza sustatzera bideratutako PFEZaren neurriak: murrizketa edo kenkarien portzentaje handiagoak inbertsio jakin batzuetan.

Así, las medidas se analizan y valoran en el orden en que se han presentado en el apartado de cambios normativos.

1) medidas del IRPF relacionadas con la progresividad y redistribución: bonificación de rendimientos de trabajo, obligación de declarar y tarifa de la base del ahorro.

2) medidas del IRPF dirigidas a impulsar los sistemas de previsión social voluntaria de empleo, y en especial los planes preferentes: nuevas deducciones en cuota y modificación de la tributación de las prestaciones.

